

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2021eko martxoaren 2an Udaletxeko Udalbatza Aretoan
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00-19:30

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARIA: Jon Insausti_EUSKARAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
Eneka Alvarez_EH BILDU
Ane Oyarbide_PSE-EE

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

Ainara Vázquez_BAGERA ELKARTEA
Josune Otxotorena_BERRITZEGUNEA
Pablo San Vicente _SHOPSS
Aitziber Otegi_AEK
Mikel Aiestaran_GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA
Idoia Elurbe_KUTXABANK
Dani Goñi_BATZEN

Euskara Zerbitzuaren langileak:

IDAZKARIAK: Edurne Otamendi (Zerbitzuaren burua) eta Alex Aisa (Hiriko Hizkuntza Normalizazioarako Atalaren burua)

Beste:

Olazt Mujika (Herri Partaidetzako teknikaria)

EZ DIRA BERTARATU:

Maite Asensio_URTXINTXA (ezin etorria adierazi du)
Andoni Iraola_REALA (ezin etorria adierazi du)
Zuriñe Porres_IRUTXULOKO HITZA (ezin etorria adierazi du)
Miren Azkarate_EAJ (ezin etorria adierazi du)
Aimar Insausti_EHUko ordezkaria
Naiara Lopetegi_EUSKADIKO KUTXA
Luis Mari Ralla _BIZARRAIN
Mikel Lezama_PP
Juantxo Iturria_Elkarrekin Donostia

1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko bileraren akta onartu dute.

2. Batzorde iraunkorra

Lehendakariak adierazi du batzorde iraunkorra osatu gabe gelditu dela. Idazkariak, kontseilua egin aurretik, hainbat dei egin zituen jendea animatzeko baina ez da batzordea osatzerik izan.

Bestalde, lantaldeak sortuko dira egoki ikusten bada, eta zenbatero, noiz eta zein gai lantzeko elkartuko diren erabaki dezake lantalde bakoitzak.

Lehendakariak arlo sozioekonomikoa lantzeko lantaldea osatzeko proposamena egin du, merkataritza eta ostalaritza sektoreak duen garrantzia kontuan hartuta.

Bestalde, kultur aniztasunaren gaia jorratzeko lantaldea sortzea ere proposatu du. Euskararen Plan Orokorrean esparru berri hau lantzearen beharra zehaztu eta gero, Euskara Zerbitzuko teknikariak bilerak egiten hasi dira Udaleko Kultur Aniztasuna atalarekin eta hainbat elkarterekin, arlo honetako informazioa jasotzeko eta osatu nahi den foro edo lantaldean parte hartzera animatzeko.

Aisialdiaren alorrean, kirolaren lantaldea oraingoz abian ez jartzea proposatzen da, pandemiak eragin zuzena baitu alor honetan. Aurrera begira ikusiko da lantalde hau aktibatzea merezi duen ala ez.

Bagerako ordezkariak galdetu du zein izango den lantalde horien dinamika.

Udaleko Euskara Zerbitzuaren buruak erantzun du lantaldeak berak markatuko duela dinamika: Euskara Zerbitzuak abiapuntua planteatuko du baina hortik aurrera lantaldeak zehaztu beharko ditu jorratu daitezkeen lan ildoak, lan erritmoa, bileren maiztasuna eta abar. Lantaldearen izaera mistoa dela aipatu du: Kontseilu sektorialeko partaideak + sektoreko eragileak.

11234401

3. Euskararen Kontseilu Sektorialeko 2021eko gaiak

4. 2021eko bileren egutegia.

Bi puntu horiek batera jorratu ditu lehendakariak. Gauzak horrela, 2021erako egutegi eta gai proposamena egin du:

Martxoak 2

- 2020ko aurrekontuaren balantzea eta 2021eko behin-behinekoaren aurkezpena.
- 2022-2023rako partaidetzazko aurrekontuak.

Ekainak 15

- Aisialdirako eskaintza proposamena udan eta ikasturtean zehar.
- Euskara eta kultur aniztasuna lankidetzarako eta lanerako ildo nagusien proposamena.

Azaroak 16

- Urteko balantzea.
- 2022rako aurrekontu proposamena

Lehendakariak adierazi du kontseilukideren batek beste gairen bat lantzeko interesa izanez gero, proposamena bidaltzeko epea zabalik egongo dela martxoan zehar, Aste Santura arte.

5. 2020ko aurrekontuaren balantzea eta 2021eko behin-behinekoaren aurkezpena

Lehendakariak aurreko urtearen errepaso laburra egin du. Covid-aren eraginez, zenbait jarduera bertan behera geratu dira taldeka edo era kolektiboan aurrera eramaten zirelako. Hori dela eta, aurrekontua 3,2 milioikoa zen arren, 2,7 milioi gastatu ahal izan dira.

Esan bezala, zenbait jarduera ezin izan dira aurrera eraman kalean edo taldean egiten direlako: aisialdi ekintzak, eskola orduz kanpokoak, Euskararen Eguna, Euskaraldia (hasiera edo bukaerako ekitaldi jendetsuak) eta abar. Horrek, noski, gastua gutxitzea ekarri du. Aldiz, horietako zenbait ekintza ikastetxeetan edo gaztelekuetan antolatu behar izan direnez, eremu kontrolatuagoetan, garbiketa gastuak urte hasieran aurreikusitakoak baino handiagoak izan dira.

Itzulpen gastuak ere murriztu egin dira, aurreikusitako baino itzulpen lan gutxiago bideratu baitira kanpoko enpresetara. Itzultzaile neuronalaren eragina antzematen hasi da. Azkenik, Udaleko Ogasun eta Finantza sailetik udaleko atal guztietan aurrekontua murrizteko agindua jaso zenez, batez beste, laugarren kapituluan, %20an murriztu ziren diru laguntzak (hiritarrentzako euskara ikasteko dirulaguntzak jaitsi ziren gutxien esaterako).

2021eko aurrekontuari dagokionez, 3,1 milioi eurokoa izango da hiru ataletan banatuta. Hiriko hizkuntza normalizazioari dagokionez, 1,5 milioi euroko aurrekontua izango da (1,6 milioikoa gastu orokorrak kontuan hartuta). Hala ere, ezin da ahaztu ezohiko egoeran gaudela oraindik eta pandemiak eragin egingo duela zenbait jardueratan. Hori dela eta, aurreikuspen kontserbadorea egin da iraila arte. Kultur aniztasuna izango da lan ildo berria hurrengo plangintzan; euskara ikasteko dirulaguntzak blindatu egingo dira; Euskaraldia prestatzeko dirua bideratuko da aurreko eta itzulpen bulego diru gutxiago bideratu beharko dela aurreikusi da.

Euskara Zerbitzuaren buruak gogoratu du 2020an zenbait kontratu eten egin zirela itxialdia dela eta. Horrez gain, Oporretan Euskaraz udaleku irekiak egokitu egin behar izan ziren eta 8 ikastetxe erabili ziren jarduera modu seguruagoan eta kontrolatua aurrera eramateko. Haurrak Beti Jolasean jardueran ere, aurreikusitakoa baino izenemate gutxiago izan dira, hainbat eskolek eskola orduz kanpoko jarduerak ez antolatzea erabaki baitute, eta bestela ere, guraso askok ez dituzte haurrak eskolak kanpoko jardueretan apuntatu. Hori dela eta, jarduera horietan gastuak murriztu egin dira, baina era berean diru sarrerak ere bai.

2021era begira, Euskara Zerbitzua saiatu da zerbitzuak egokitzen eta behar espezifikoak erantzuna ematen. Honela sortu dira Aisikasi moduko egitasmoak, eskola orduz kanpo mintzapraktika lantzeko online egitasmoa eta abar. Horrez gain, kultur aniztasunaren alorrean ekintzak martxan jarri aurretik, Euskara Zerbitzua bilerak egiten ari da astero Donostian dauden elkarteekin eta hortik lorturiko informazioa baliagarria izango da planteamendu integral bat egiteko. Merkataritzan eta ostalaritzan Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzera emateko eskuorria egin da batetik (establezimendu guztietara banatuko dena), eta bestetik, zerbitzu horien berri emateko bisita pertsonalizatuak egitea aurreikusten da, pandemiak baimentzen duen neurrian.

Bagera elkarteko ordezkariak aipatu du dirulaguntzetan eta hitzarmenetan murrizketak egon direla 2020an, eta 2021eko aurrekontuak jaitsiera izan duenez, murrizketak berdin jarraituko dutela dirudiela. Bagera kezkatuta dago horrekin eta zein den aurrera begirako proposamena galdetu du.

Lehendakariak erantzun du pandemiak eraginda hartu behar izan direla erabakiak eta 2021eko aurrekontuetan aldaketarik aurreikusten ez denez, murrizketa batzuk mantenduko direla, ez denak. Hala ere, 2022an saiakera egingo da murrizketa horietako batzuk leuntzeko.

EH Bilduko ordezkariak galdetu du ea iazko Euskaraldiaren baloraziorik egin ote den, datorren urteko Euskaraldia prestatzeko hori kontuan hartzea garrantzitsua baita.

Lehendakariak erantzun du balorazioa egin dela Euskaraldiaren Talde Motorrean. Udalari dagokionez, udal barruan egindako lanketa oso positiboa izan da bikoiztu egin baitzen parte hartzaileen kopurua (400etik 800era). Horretan, ariguneak oso lagungarriak izan dira eta bitarteko interesgarria izango dira aurrerantzean ere. Hiriari begira, ondorio nagusiak hauek dira: Arigune dezente sortu dira baina oraindik ere pedagogia egitea beharrezkoa da, bai ariguneak zer diren azaltzeko eta baita ahobizi eta belarriprest rolak ondo azaltzeko; Pandemiak eragin handia izan du ariketaren ikusgarritasunean eta hori ere hobetzen saiatu beharko da, kalean nola edo hala ikusgarriago egiten (alde horretatik, oraingo honetan entitate handietara jo da ariguneak sortzeko eta komeniko da hiriko merkataritzan eta ostalaritzan ahalegin gehiago egitea).

6. 2022-2023rako partaidetzazko aurrekontuak

Herritarren partaidetza saileko teknikariak partaidetzazko aurrekontuei buruzko argibideak eman ditu: ezaugarriak, baldintzak, urratsak eta egutegia.

7. Norberak lekarkeena

Batzeneko ordezkariak bere kezka adierazi du itzultzaile automatikoarekin gaztelaniaz lan egiteko joera ez ote den indartuko eta mesederako baino kalterako ez ote den izango. Alderdi horretatik, jakin nahi du euskaratik gaztelaniara egiten ote diren itzulpenak ala alderantziz.

Euskara Zerbitzuko buruak adierazi du horren gaineko daturik ez dutela gaur egun. Hala ere, une honetan, Euskara Zerbitzuarentzat hori ez dela kezka iturri nagusia gaineratu du itzultzaile automatikoak erabiltzen duen orok bi hizkuntzak ondo menderatu behar ditu eta. Itzultzaile automatikoaren erabilera zuzena ziurtatzeko neurriak ezarriko ditu Euskara Zerbitzuak: formazio saioak eta abar. Gaur egun, bestalde, zuzenketa lanak egiten ari dira Euskara Zerbitzuko teknikariak, trantsiziozko egoera batean baikaude, eta tresna horren erabileraren jarraipen zorrotza egiten ari dira.

EH Bilduko ordezkariak galdetu du Hiriko Euskararen Plan Orokorren betetze maila aztertzeke aukera izango ote duen Euskararen Kontseilu Sektorialak

Lehendakariak erantzun du azaroko kontseilu sektorialean egingo dela urteko balantzea.

Lehendakariak azkenik, galderentzako tartea zabaldu du eta horien ezean, bilera bukatutzat eman du 19:15ean.